

SINERA-KO LIBURUA

Juan San Martín-en itzaurrea ta itzulpena

Euskal Itzulpenari Itzaurrea

*Diversos són els homes i diverses les parles,
i han convingut molts noms a un sol amor.
(La pell de brau).*

Bearrezkoa zait irakurle euskaldunari bi itz esatea. Bat-batean utsik ez baita erreza Espriu-ren olerki muina konprenitzea.

Askok ezagutuko dute Espriu nor dan eta berentzat ezer gutxi agerreraziko dut beste batzuk erderaz esan duenez aparte. Ez bai dut gauza aundirik esango. Olerkariak berak du aunditasunik aski eta nik naiago dut nere apaltasunean lotu.

Kataluinia aldetik Salvador Espriu zutitu zaigu profeta baten gisa. Bere idazki giartsuak ots aundia zabaltzen ari dire lurraren lau aldeetara. Olerkari, saiolari ta teatrolari bezala, oso bakana da eta izkuntzak mugatzen ez duen lasaitasunean diardu. Irurogetak urteak ondoren bere *Ronda de mort a Sinera* izan da Madrilgo saloi batek agertu duan katalanezko teatrua. Adrià Gual Eskolak eramana. Ricard Salvat-en zuzendaritzapean.

Oroitzen gera nola bere denboran ots aundia izan zuen *Primera història d'Esther* (1947) beste teatru lan arek ere.

Olerkaritzan artzen ari dan ospea ez da gutxiagorako. Beste izkuntzetako zenbait itzultzaille adi daude bere lan berriak pranisesez, inglesez edo naiz gazteleraz jartzeko. Ta, egilleak berak ospea badu, ez da gutxiago bere izkuntzari ematen diona. Jose Maria Castellet-ek zion: «Espriu-k ondo merezi du katalanez ikastea».

Iñoiz bururatu zitzaidan *La pell de brau* euskerara itzultzea. Gerrogo Aresti gandik jakin nuen berak ere asmu ori zuela. Ta aurten «El Bardo»-k agerrezari duen *Llibre de Sinera* (J. Marco-ren itzaurre eder batekin argitaratua) irakurtzean, beste gabe ekin nion lanari.

Euskerara bere berria ematen duan lenbizikoa ez naizela aitortu bearra dut. Igazko urtean «Olerki» aldizkariak argitaratu bai zuen *Bidaria ta orma (El caminant i el mur, 1954)* liburuko «Assaig de càntic en el temple» olerki ederra, J. A. Loidi adiskideak emana.

Sinera-ko liburua-k bukatzen du *Sinera-ko illerria*-n asita *Zezenaren larrua* liburuan igaroz osatzen dan poema nagusia (1).

Irurak dira kideko. Liburu bakoitzak bere bukaera osotu bat badu ere, liburuetak olerki bakoitzak duen bezala, lan guziak du, gai ta eraren aldetik, lokarri estu bat. Ta azkenetik asi bagera, gaurkoagotasuna izan dedin da. Espriu-ren lanak, len eta oraingoak geroruntza ere iraupena izango dutela uste dugu.

Asieran esan dudan bezala, Espriu ez da lenengo golpean ondo ulertzeko erakoa. Olerkari sinbolista da bere moldez, sinbolismu eskolatik geroagoko bada ere funtsez. Sinbolista eran itzeri beste esan nai bat ematen zaionez, illun ageri da bere parte askotan. Au oso kontuan izan bear dugu bere muiñera jo nai badugu. Orregaitik, bearezkoa da poliki ausnartuz irakurri bearra.

Bere gaietan, erri lurra, gizonaren izakera, izkuntza, kosmosa ta egillearen burua bat egiten ditu, sinboluz naasturik, erri ta errikoen zoria ere bertan dijoalarik. Orregaitik, adi joan bear dugu:

ens pujaran mots fràgils

a nova claredat.

(itz ariñak jasoko gaituzte

argitasun berrira arte.)

esaten digu *La pell de brau*-n. Ta bere illuntasuna argi da bere molde erarekin atxikitzen bagera. Zeren ere berezi orretan azaltzen digun sentiera oso gogo-barnetikakoa bai du, iñoiz zintzotasunari ukorik egin gabe, dion bezala:

Direm la veritat, sense repós,

per l'honor de servir, sota els peus de tots.

(Egia esango dugu, atsedon gabe,

ohorez zerbitzeko, guzien oinpean.)

Bere sentipenak, olerkari on bati dagokion bezala, beti erri-lur eta gizonentzako maitasun sakonak eskeiñiz ariko zaigu:

(1) Lan guziok dira Santiago Albertí, Editor-ek 1963-an liburu batean bilduak *Obras poéticas de Salvador Espriu* izenez.

*Com estimen la nova
terra de l'aspre pa
que deixa a les velles boques
sempre regust de sang!*

(Ogi lazduñ lur
berria zenbat maite dugun,
ago zaarleri ematen diona
beti odol kutsua!)

Kataluiniera ez dut menderatzen bere izkuntzan aldetik nere aburua agerrerazteko, baiña orretzaz aski mintzatu dire bere erriko irizariak, beren arteko Castellet, Espriu bere alorrean ezagutzearren, beste gabe, katalana ikastea merezi zuala esatean, laudoriorik onena eskeiñi ziona. Baiña olerki izkuntza naiko ondo nabari zaigu bere adierazpen goxo indartsua zurgatzeko. Gauzak esateko era bikañak lortzen ditu, bere barne-gogotik sortuak. Ta alkarren prolema berdineri buruz ari danez, kideko egiten gaitu bere kezka eragiñez.

Ez du gure literaturako iñoren antzik. Bere era, beste era bat da. Bere mundua eta gure zenbaitena antzerakoa bada ere. Bear bada, bere liburu oiek irakurtzean, iñoiz, gure Iratzeder-en *Pindar eta Lanho* eta *Zeru-menditik* etorri zaizkida burura. Baiña, Iratzeder-ek gure bertsolari ta kobla zaarrez kutsaturik edo, sinbolismu urratuagoa du, errealitatezkoagoa da.

Espriu-ren lanen bat lendik irakurria dueneri ez zaie gaitza izango gai ta mamiz jabetzea. Egille onek zurrunbilloak bezala erakartzen du bere ingurura, ta zenbat eta geiago irakurri orduan eta geiago. Urre-ratuaz biltzen gaitu txorabio kezkatu baten biran, bere mundu iñoiz arrigarri, iñoiz ikusgarria, maiz larrimiñaren mugetatik, beti iduri aberatsez orniturik. Ara, eretan nola antolatzen duan:

Illuna da sorkaldea,
itsua da sarkaldea.
Ez goi ta ez bee
eztago argirik.

... ..

Eta denbora jaurti
zarata gabe,
alorrak ondo
arraustu, basoa,
ukuillua, etxea,
janari-gela umilla,
itsasora begi legor
malko gabeak,

arraí egalak,
ondakin nazkagarriak,
satsa, odola,
zorro zikiña
buru bat ia utsa
edozein oroitzapenetik.

Eretan orrela, erruki gabe, aztertzen ditu gauzak. Gordintasunez, gordin bear danean eta apaltasunez, apal bear danean. Maria Aurèlia Capmany-k zion *Les cançons d'Ariadna* argitaratu zuanean (1944-tik 1946-ra idatzia ta 1949-an argitaratua): «*Les cançons d'Ariadna*, goizegi iritxi zan, denborak baiño len, bear zuen otsa espero izateko. Geienak ez zuten ulertu Salvador Espriu-k zergaitik asi zuen olerki erdoitu au, egi izugarriaren salatze au, errezkaran jarriaz aberats sa-beltsu eta doakabe zigortuen erretaula au liburu nabar eta estuan.» Gaur, beraz, ez da uste okerrik bere olerkiari buruz, eta bai bestelako abururik.

Larrimiña nabari du, eriotza inguru duela. Maiz bere etsipenezko kanta salatariak egoeren zuzenbideen eskariz direla. Bere prolema, guzion prolema egiñaz, egoera ta izaerari loturik daramaz. Adibide ditugu atal auek:

Ezurtegian, zear-zulo
sendodun tesoroak.
Laister, biotza
denbora arrigarrian, gu,
bide bigunak, buziña bakarrik.
Gero, lortua,
ia betiko, autsa.

Itsu geiagon makillak eragiñaz
ondoko legorrear
ezer ez onetan. Zetozten
erreja itxien
barroteak konpontzera,
nere ametsa zauritzen zuten.

.....

Itsu zaarrari galdetzen zion izuak
biar nere erririk izango ote nuen.
Eta ezpainik gabeko agoak asi zuen
iñoiz bukatzen ez dan irri-parrezko algarra.

Azken gabeko tristura au, izozten duana,
beti-danik gure gaiñetik asmoz ibiltzeak
egiten du ain urbil sentitzea munduaren amaia.

.....

Oietarik ezer ez, au ere ez:
bestelako erantzunik ez
illunean,
txorabio erdiaren
geldira joerarik gabe.

Kataluniako izkuntzari ara zer eskeinen dion XVI-garren olerkian:

Esperantzaz mintzatzen naiz
desesperantzaturik:
itz berri batek ez du asetzen
goserik aintziñakoena.

.....

Izkuntza purtzildua,
idi-erria loiean.

Ta ez da guzia etsipenezko, XIX-garrenean itxaropentsu mintzatu-
tuko da. Bere kezka nagusia gizona bere justutasunean billatzea da-
nez, bearrezkoa zaio gizonagan esperantza:

Idurizko argiak gorde-lekua arkitu du.
Argi onek espero du egizko argiaren etorrera.

Poema guziaren giltza arkituko dugu XXIV-garren olerkian. Onet-
etakoa izateaz gaiñera lan guziarekin zer ikusi aundia du. XVIII-ga-
rrenean, maiz ari dan bezala, arkituko dugu betikotasuna bere erria-
ren trajeriarekin naasturik. Maizago jardutzen da kosmosaren bakar-
dadean berekautako pentsamenez, batez ere azken aldera XXXI,
XXXIII, XXXVII ta abar, azken aurrekora arte. Baiña, bukatzeko,
berriz ere itxaropenezko kantari oratzen dio.

Espru-ren zenbait olerki, Raimon-ek era berriko kantura erama-
nak ditu. Orrez gaiñera, Raimon-ek, geienbat Espriu-ri zor dio bere
kantak egiteko era.

Espriu-k badu bere abotsez egindako olerki diska bat ere «Adiphone»-k 1963-an agerrera, ta eskerrak Antoni Verge adiskideari, noizean bein entzuteko aukera izaten dudana. Diska ori ere laguntasun bat izan dut bere zentzunera obeto girotzeko.

Olerkariaren bideak kezkatzeko egiñak dira, bakoitzaren konzientzia iratzartzeko, erri ta gizonen burubideak oberatzeko. Oraingo ta betiko munduari begira jardutzen da, profetaren mezuz ariko balitz bezala:

homes de pau,
que procuren entendre
(pakezko gizonak,
ulertzen alegintzen geranok)

or dago kakoa. Ta, bear bada, bere erriaren maitasuna adierazteko aski da bukaeran dakarren adigarri au:

«Bizitzen sentitzen naiz bizitzen zeranean
eta illaz iltzen zeranean.»

J. S. M.

Maria-Lluisa Espriu, nere arrebari,
eta Dr. Felip Cid adiskideari.

Arenys de Mar, 1966-ko irailaren 21-ean.

*Juan San Martin.
Eibar.*

Nere adiskide bikuiña:

*Ez nekin ezer zure asmu ta egintzeri
buruz, eta egiazki eskertzen dut. Euske-
raren goresle bat naiz eta Euskalerrria ta
bere jendearen zale gartsu bat. Beraz, po-
zik ematen dut itzulpena argitaratzeko es-
kubidea, ohore berezikiz atsegitzen bai
nau.*

*Kopia igortzen dizut, bearrezko ba-
zenduke ere.*

Agindu beti zure esker-onekoari.

ESPRIU.

*Munduagandiko atsekabeak eriotza dakar.
2 Ko., VII, 10.*

I

Ez al duzu entzuten aitzurkada otsa
orma esi altuen gainekaldetik?
Deskantsu gabe, ta ala ere poliki-poliki ariz
denboraren segidako esitik aruntzago.

Mastiak atera zituzten, mats-aienak erre;
lur onaren gaiñetik zabaltzen zan bazter soilla.
Errekaren suge biurretik arrastaka
zarraren oin urduri auen pausoak.

Jakitureiak oiu lugorrian,
aizeak mugitzen zituan kaiñabera legorretatik:
«Begira neregan zelan eltzen dan izatera
neronen eriotz lortua».

Itzalean makurturik, nekazariak aitzurka
neguko masti billutsietan.
Ez dago argirik zeruaren utsune guzian.
Aitzurkada batzuk bakarrik biotzaren izotzean.

II

Zeure neguan zaude, eta lurraren otz au,
aitzurragaitik iratzartua, poliki-poliki sortua,
sakon bakoitzetik igotzen da eta zabaldu ta estaltzen
marraskillo sikatuen txirlaz ormaren nekatuan.
A!, neke ain txikiak, ia zentzunez ustuak,
oraindik orren urrun, eta betiko, arantzen saria
loaren eskubidea gordetzen duena eta nagusiaren iseka!
Baiña puspulluka egiñaz arrai-sarda itsas illunduan,
arkaitzen eta ondar-pillen sendotasuna igartzen dedan lekuan,
eta aize pizkat urreratzen da lugorriaraiño,
jux-juxtu utzirik laiño lerro bat millu meean.

III

Aizeak dario milluetan
laiño urratua, zati txikiz.

—Artzera bazijoaz, beatz artean urtzen da:
oroitzak ezin du lortu.

—Begiak astiro-astiro jaso zuten,
bazekiten eta kontatzen dute sekula lorik gabe.

Traperuaren gurdia bete zan
ordakiñen salgaiz.
Basariko biotz ametsetik eltzen da,
illuntzean, astakumearen pausuz.

Bidetxiurraren illunetik urbiltzen da
ezkillen zarata: dilin-dilin.
Gauaren beldurra darama,
kilkerren zalaparta eragiñaz.
Astiro sartzen zan kalean,
denboraren tristezia arrigarritik.
Langaren aurrekaldean gelditzen zanean,
itzalean exerita begiratzen genion.

IV

Langan exeritzen giñanean, udarako gau-solas,
aizea atsedenean zelarik,
eta krisailluak belaxe tristeago egiten zuen argia,
bide-lasterretatik urrutiko zakur zaunka eltzen zelarik,
gauaren basetxe goitietatik.
Zergaitik muiño guziak gau ziren, eta
ibilkor nekatu baten otsa jasotzen zien
illunetik, poliki-poliki, lazturari.
Orduan norbaitek esan zuen: «Gaur enara
asko ikusi ditut, artatxoriak antzera, soroetan».
Eta beste abots batek: «Bear bada laister euria».
Eta nik begiak itxita begiratu nituen
banan-bana, ia beren pakean, nere ildakoeri.
Eta bide au ezagutzen nuen, sekula-santarako berek gabe,
eta baita ere zelan igarotzen diren etorriko diren egunak
ondartzaren utsune luzetik.

V

Gaur zu bezala, ta zu bezala ere, biarkoan sarturik ere,
atzo jaso genun ondar bustiaren gaiñean
udarako itsasoak beti borratutzen dituan jolaseko gazteluak
bere zabal, jarraituan, zakurraren mingain luzea.
Oraindik ondartzan gaude, eta olatu ondoan igaroaz
tren beteak txistu ta kea nabariz
naiz iparraldera edo naiz egoaldera, alorretatik urruntzen dira
arrigarriz eta guztiz itxiak begiradaren maitasun leunari.
Zaintzailleen itzalak, lilluratuak. Dorretik,
jabetzat jaiki ziranen ordurik tristeenen
bidegabezko atsedena gordeaz. Eragiñaz biotzaren
odol billa, agurtutako putzuaren ametsetik,
eskale zaarren puntadun makilla luzeekin.

Orain, sarkaldean jaikitzen diran mendi txikiak
laiñozko mantillaz banan-bana dotoretzen dira
eta errezkaran sartzen dira arratsaldeko atari aunditik,
poliki, zeren jo bai du gure denbora ia illaregaitik.

VI

Otsaren lorratz zabal batek
estali ta bukatzen ditu
aizearen kanta goitiarrak,
suaren ausberoak.

Ezkila zartatuaren
mii biurtuta,
artzaingoari dei dagiot
taldearen gose aundia.

Sabel luzeak, sabel bigunak
lur illunaren barnean.
Otzean ausartuaz
poliki-poliki kiskortzen gaituzte.

Ezurtegian, zear-zulo
sendodun tesoroak.
Laister, biotza
denbora arrigarrian, gu,
bide bigunak, buztina bakarrik.
Gero, lortua,
ia betiko, autsa.

Itsu geiagon makillak eragiñaz
ondoko legorrean
ezer ez onetan. Zetozten
erreja itxien
barroteak konpontzera,
nere ametsa zauritzen zuten.

VII

Makillekin, eskekoak banan-bana begirutzen zituzten
nere kaleko errejaren barroteak.
Poliki-poliki urreratzen ziran aldapatik,
Egualdi Txarraren piten bidetikakoak,

eta aterik-ate limosna eskatzen zuten,
gau izugarriaren taldeak eguerdiko eguzkian.
Astean bein, pobreak eltzen ziren
poliki batean, ia geldizko prozesioan,
eta erlaski kantazko abotsez deitzen ziguten
zorne-jarioz eta ao-zikiñez gaitakerizko merkatua atxikikor.
Plazara jetxiz igarotzen zan laguntaldea,
gero autsezko platanu altuetan galduaz,
zipresen urruti-lausoaren itzalean.
Ze zikin uzten dituzten atariak, osteak,
itsas-aizearen kresala, udararen argi osoa!
Baiña, itsu zaarra gelditzen zan oraindik, beti atzeratua,
bere begien zauritik guzia begiratzen zuena,
espaz, odolez ornitua, beroak,
erantzunik gabeko gure galdera izugarrietara irikirik,
bere senetik aterata utsean estali arte,
ega arin eta sendoan, euli-laiño bat.

VIII

Itsu zaarrari galdetzen zion izuak
biar nere erririk izango ote nuen.
Eta ezpainik gabeko agoak asi zuen
iñoiz bukatzen ez dan irri-parrezko algara.

Argi-zuziak buruetan.
Kalea sutegi biurtzen zitzaigun.
Berealaxe eltzen zan, itsasotik,
aize apur bat atarietara.

Begi zuriak ez zeuden ia
itzegin zuan beldurraren aurrez-aurre.
Orain pausoak urruntzen dira
zipres geldi zaintzaillietatik.

Berrizte genun amets atxikikorra
—idia, sugea, basurdearen kontra—
gure borondate gaitzetik,
gure zindotasun kementsutik,
gure libertade leialetik.

IX

Gosea esnatzen da
basurdearena,
orain laztura dagolarik
eta artoa aundi.

Belar ezeen zelaian
sube-gorrien edena dago:
bat-batean, beteko dira
eriotzez nere begiok.

Idiak loietatik
arrastaka daraman errejak
tristurazko erretenak irikitzen ditu,
oroitzapen geldi murrizak.

Ikusiko dituzu, bear bada,
ezbidezko agintaritzak eskuetatik
eroriaz, odol berria bat-batean
aunditzen dan bezala?

Itxaroten zuenak itzultzen bazekin
arbolen ametsean itxitako
loretegiko bide
luze aiztuetatik.

Uraren argitasuna, garbi-
tokiko odolgi meea.
Ondarreratzen ziran ontzi maxkalak
aizea apaltzean

X

Papelezko ontziak
jaurtzen nituan nik
aizearen geldi luzean.

Urrea, erle ta
artsaldearen egarriz,
itsas-ura edaten du.

Ondoratzen danean,
berunezko soldadua
ontzia begiratuko dut.

XI

Jetxitzen ziren ontzia eta soldadua
nere ametsak egiztatzen zuen
itsaso aren ondora.

Loiezko triton ura, odolgi ezearen
goialdetik begiratzen dut.

Argitasuna suntsitzen zan.
Arrasberako bare geldiak tatarrazka zeramaten.

Kolgadurak ateratzea bukatu zutenean
atzo gordeak izan zituzten kajoitik,
bost arbolen lorategian dirdiratu zan
krisaillu baten argi apur otza.

XII

Egualdi Txarraren gaiñean,
sustrai zaarraren inguruan
algarrobo igartuetan,
aizea berriz asten zan.

Auntz-bide batetik
bidetxiurreraiño jetxi zan.
Maillaz zaratatuaz
kaiñaberetan.

Gero, ia ondartzza igarota,
itsas ertzean,
ortz-giro guziak
ondo begiratu ondorean,
deitzen dio bere ontzi-burueri
sardiñaren arrantzara.

XIII

Itsas aizea ateratzen da,
orain illuntzen delarik,
sardin toki alderuntza.

Aizearen sarrerak
laiñoz lausotzen du
zeruaren begirada guzia.

Lendabiziko kilkerrekin,
ezkutuka jolasten dira
gauaren begiak.

XIV

Kri-kri geldiak galdetzen du:
«Esku itsuak billatzen zaituelarik,
oraindik zelan zaude emen?»

Itsumustuka, gaua.
Atzitu segurua sentitzen bazera,
nora iges?

Beatzak seiñalatzen zaituanean
itzalean ondoratzeko,
esaizu baietz.

XV

Atsegiñez baietsiko dut, bakarrik eman bai zidaten
une bateko aberastasuna limosnatzat.

Ala ere, aal baluke iraun
argi geldiak, zipresen
ordena klaruak, mastienak, soroenak,
gure izkuntzak, maite izan ditudan
gauza guziegan begirada geldiak!

Beldurrak inguraturik, zirtolarien isekaz
eta irriparez izotzaren erdian,
salbatu nai dugun erri onen
odola diran itzak esan ditugu.

Ez da aztarrenik gelditzen uretan, ez ontziaren
lorratzik, gizonarenik, ez bere urratsik.
Trapero arrigarriak zakua betetzen zuan
goraintzi arabakiñez eta badijoa,
euri illunpean, aize-beltza beera,
itsasoan galtzen diran bide luzeetan.

XVI

Itsas bidetan,
ontzi ta ekaitz
ez dute uzten aztarnarik.

Zertan elduko zan
gorrera oiu au?
Biurtzen dut, entzun dezan,
gure izotza sutan.

Esperantzaz mintzatzen naiz
desesperantzaturik:
itz berri batek ez du asetzen
goserik aintziñakoena.

Nere munduari
atariak arrapatu zizkien.
Eriotzarekin mugatzen ziren
alarze guziak.

Izkuntza purtzildua,
idi-erria loiean.
Joku ergelak usteltzen dituzte
garun zital geldiak.

Barne ontzi-oiala
azken itsasotik.
Olatuak bustitzen zuten
laiñozko zeru zabala.
Arbolak eratziak,
itsas-ontzia ondoratu zan.

XVII

Azken gabeko tristura au, izozten duana,
beti-danik gure gaiñetik asmoz ibiltzeak
egiten du ain urbil sentitzea munduaren amaia.
Ta zeñek daki norbaitek, ondoratzearen itsasotik,
egun batean ez ote duen irabaziko ertz argia
eta berriz agindu ibillera, zorrotzago
bide idiki ta zuzenetatik!
Bear bada orduan konprenitua izango da
goratzen dan kanta, oiñaze askorekin sortua
gau onen biotz beretik.

XVIII

Ez zan ulertzen gauaren kantua,
itzak orren garbiak zirelako

«Onartzen duzu urre apurregaitik saltzea
etxea jaso zenun aintziñako etxalekua.
Semeeri ezarriz, ba, jaun nai dituzu,
izkuntz arrotz baten zurrurutun mingotsez.
Beti lurrari lotua, zure muturra
zikin artean ausartuz fintzen da.
Nagusiak egunero solomoan arkitzen zaitu,
berarentzat txistu sotillen kausitzea egiñaz.
Kurrunka atsegiñez eta umiltasunez menderatuz
zigorpera eta isekarik doillorrenetara».

Itsaso aretatik eltzen zan kantu latza
nekatu eziñezko abots asarrearena.
Urruti-urrutitik ega egin zuan aztorea bezala
ego aundiz zabalduaz.
Luzamenez sartzen zan bost
arbolen lorategiko kerizpean.

XIX

Idurizko argiak gorde-lekua arkitu du.
Argi onek espero du egizko argiaren etorrera.
Txoria, ik dakianez bere jatorria, iriki zak begirada
betazalik gabeko begiz loretegiagan.
Atzean gelditzen da basamortuko aize illuna,
amesgaiztoko erbi-zakur etsaikia legorretik menderatua.
Asiko da kanta nagusi baten eragiña
gauza bakoitzaren ezpain ixillekoetan.
Zeren orain eguzki gaztea itsaso tantakaz dator
eta igo, geldi klaroan, poliki-poliki, geldituz,
bidetik, orren zuri ta lau, orma altutik.

XX

Itsasoz blei,
orma ontara
eguzkia eltzen da.

Neguko argitasuna
ibilli dezan
bakarrik jaso zuten.

Argi ezta
ormatik igotzen da
astiro otzez.

Egunak jarrai
zuritasuna. Sorkaldeko
ordua atzeratzen da.

Eguzkiaren pauso laburra
erensuge ametsaren
neurri luzea da.

XXI

Eguzkiak lokartzen zuanean, untz altuetan
egokiturik lorategiko orma jarioan,
il eta bizien izen eta pekatuak ezagutzen dituzten
esku umillak eramaten gaituzte emakume zaarregana.
Beren atsedenean mintzo ziren urruti griñez,
erantzunari itxaro gabe, baizik itzen errepika bizia bakarrik.
Beretariko batek, ala ere, bere begi argiz
begiratzen zigun, ixillik, jakintzaren aldetik,
eta ixiltasuna buruen gainetik zijoala egiñaz,
zigueñiaren ega gaztelako zeruan eguzkia sartzean bezala.
Begiratzean, egontoki zabalaren erdian,
gure beldur guziari menderatasuna eskeiñiz,
parrerik ariñena ere gordeleku ona zelatik.
Aintziñako porzelana ikusi dut gero
egun utsak puskaturik, eta itsasoa
euriz oso bustia, eta argia
erensugearen ametsean poliki-poliki gelditzen dala,
eta itz bakanak bezala, denbora aren ornitura,
sartzen naute, lurperaturiko bidean ondoratuz.

XXII

Ondarrezko bide legor sakonduan
urrutiruntz sentitzen nituan gaillur dirdiratsuak.
Baiña ikusi ez, zeren debekatzen bai didate
zalitzakiak eta kaiñaberazko esi altuak.

Beti eraka aize zurrumurru bat
itsasoz asean. Larrakatik eltzen ziren
autsaren usai latzak eta orbelen kea.
Urrutiko zakur zaunka. Bat-batean, artzen nau
baserri inguruan asitako itzalak.

XXIII

Eukalitu zaarraren itzal aundi ta leuna.
Baserri ta ermita inguratzen duten esitik kanpora, arkazi batzuk
eta azken gabeko itur-jarioa. Bidea ezagutzen dut
eta begi-itxuka jarraitzen ditut bueltak,
zeren arduraz begiratu bai dut lur au.
Nekazarien urruti abotsa, aitzur otsa,
igelen klin-klon polikia putzuan.
Oraindik aldats gora dator tartana bat
itsas aize ta argitasuna jasotzen dizkidana.

XXIV

Argia itsaspetikan eltzen danean
sorkaldetik kiñaraz asi orduko,
lur au begiratu dut,
lur au begiratu dut.

Sarkaldea itxitzen duan mendian
aztoreak zeruko argia eramatean,
lur au begiratu dut,
lur au begiratu dut.

Gabeko aize gaixoa atsankaz danean
eta ego illunen surmurra bideetan,
lur au begiratu dut,
lur au begiratu dut.

Euriak auts usaia dakarrenean
zalitzaki urrutien orri latzegandik,
lur au begiratu dut,
lur au begiratu dut.

Ixiltasunaren aizea mintzatzen zaidanean
nere illez, alkarrekin egotean beti parre egiten dutela,
lur au begiratu dut,
lur au begiratu dut.

Oroitzapenen gaiñetik goldea pasatzeaz
neke luzez zaartuaz niñoalarik,
 lur au begiratu dut,
 lur au begiratu dut.

Lokarturiko alor guzietan udarak oerutzen duanean
kilkerrak luzatzen duten ixil zabala,
 lur au begiratu dut,
 lur au begiratu dut.

Itsuen beatz jakitunak konprenitzen duten artean
neguak zelan erazten duen mats-aienen ametsa,
 lur au begiratu dut,
 lur au begiratu dut.

Zaldien indar zoroen geiegikeriak
bat-batean bideetatik jetxitzen diranean,
 lur au begiratu dut,
 lur au begiratu dut.

XXV

Ezerk ez zuen geldieraziko
zaldien indarra
geiegikeritik. Lertuko balitz,
utzi zak igarotzen.

Moxal auen laisterkak
ez du iraungo.
Mokor auen brinkoak puskatzen
dira itsasoan.

Euriaren txorabioa,
oiñaztuaren abotsa.
Trumoi geitua
aldats beera.

Laiñoak zabaltzen du illuna
aruntzago
Mendi Aundiko muiñoak
gordetzen zituzten mugetatik.

Zaparradaren errazoi eroak
gaizki entzuten diranak.
Baña, bear bada, beretan sentitzen genun
oiñaze bat oso gizatiarra.

XXVI

Orain mintzatuz dator
errazoi eroz,
bakarti bideetatik.

Oso biotz-bera
galtzen du garuna
egualdi txarraren euri onek.

Zeren baidaki ezin dala
iñoiz utzi ikusteka
erio ibildaria.

Beatz piztuak
jasotzen ditu euriak
kale tristearen argietan.

Zalitzaki illunen
itzal sakonaren
ondora ez erortzeko.

Lilluratzen duten begi
argietan begira dezan,
itsasoan itotzen danean.

XXVII

Euriaren abotsera
ixildu ziren
gauan mintzo diran
bizi txikiak.

Egualdi ona danean,
illunaren sakonean
biltzen dira. Ekiñaz,
oso begiratuki, mee,
era-bereko, poliki
azken gabeko alkarrizketan.

Aizerik meena, astamenda,
errekatzuko ura eta kirkerra
billatuta biltzen dira

bide ber-berean
surrur neurrizko,
ixiltasun trankillean.

Euriak gau guzian
itsas-bazterra iñor-gabe
utziko balu bezala,
gaur ezin dut entzun.

XXVIII

Gau utsean,
izarren dizdira
pixkat bakarrik.
Ontzi beltza dakus
itsaso irikitik.
Aize galgoe batek inguratzen du
ondartzara arte.
Ontzi-oial puskatuero
mendetasuna dagiet.

XXIX

Brankako gurpilla jaikitzen zan aurrera,
bañia oraindik ez zait etorri
itsas bideetako ur-ildo zear
arrigarrietatik libratzera.
Ezer-ezera itzulia, lenago ezagutzen dut
izan diteken nere pausoen nekea
eta oroitzen naiz erria zelan borrokatu zen
ondarrez inguraturiko osin itsuetan.
Ai, uts eta moldekaiztasunak, betiko astuntasun berdin au
«gure libertadea» deritzen dioguna!
Sarreran euria itotzen danean
ontzia kokatzen dan baretasunean,
azken txorabioaren zerua estutzen da
esi inguruan, eta begirada urruntzen dut.

XXX

Begirada urruntzen dedanean
erretiro libre ontatik
eta nere atepak

golpera itxi,
illuntasun izoztu batek
jetxitzen nau osiñera,
sei maillaren
itzean preso:
lenago espero nuen
ondotik berbizturik
jasoko ninduan
argia atzitu.
Orain badakit urak guzia
zer modutan uoltzen duan.

XXXI

Oietarik ezer ez, au ere ez:
bestelako erantzunik ez
illunean,
txorabio erdiaren
geldira joerarik gabe.

Oietarik ezer ez, au ere ez:
nai izatera, presondegiratzen naiz
nere erretiro barnean.
Urruntzen banaiz, aal dut
neronen burua bakarrik begiratu.

Oietarik ez, au ere ez:
larrimiñari itxitzen diot
atea golpera.
Banan-bana jetxitzen ditut
mailla guziak.
Jetxitzen naiz
osin geldi itsura.

XXXII

Atsedean naiak ez du balio gorde-lekutzat,
ez dago ezelango babesik osin beeratuan.
Ba, jarririk nago bide gabeko era batean
nere uts zaarrak sortarazitzen duten txorabioan.
A!, juez, neronen buruaren juez, eta bidebatez
leiatsu salatzaile juez onen aurrez-aurre!
Baiña abotsa itotzen da sabelera urbiltzean
parre algaraz astinduta, gogor, lertzeko unean.

XXXIII

Uts eta moldekaiztasunegaitik
txorabioa urbiltzen da
sabelaren aunditasuna
eriotzarena.

Musiku bakanak
arraultza barnean
ari esteskiak fintzen dituzte
eta fiskornioak.

Zeruaren goi
zabalak ez du puskatzen
laiñotza geldiaren
sendo izugarria.

Illuna da sorkaldea,
itsua da sarkaldea.
Ez goi ta ez bee
eztago argirik.

Olagarro besoak
poliki-poliki
dijoaz itoaz
gure itzak.

Ondameneko
kontziertoan estu
naiz, danbor
azal eramakorra.

Ura zetorren
oldarka sendoz
bide luzeetatik.
Beldurraren
zakur eroak
multzoka
urratzen zidaten
oroitza zarrak.

Eta denbora jaurti
zarata gabe,
alorrak ondo
arraustu, basoa,

ukuillua, etxea,
janari-gela umilla,
itsasora begi legor
malko gabeak,
arrai egalak,
ondakin nazkagarriak,
satsa, odola,
zorro zikiña,
buru bat ia utsa
edozein oroitzapenetik.

XXXIV

Ur geldiak, oliotsuak, zikiñak.
Brankaz errenkatu dugu kai sarrera aterpe onetan,
itsas gaitzaren gorde-lekuan.
Buia beldurgarria alde batera utzirik
basura artean aurrez-aurre urgaiñerutzen dana.
Begi erdi irikiak begiratzen dute ikusi gabe
brankako gurpil altua, gaiñeraturik
oso makurka burutze batez.
Ezagutzen dut itsas-ibillaldiaren denbora guzia
ta bere etorrera nola egiten dan,
pixkaka ontzira urbiltzen diran artean,
argi geldiaren dizdiratik,
ixil itxitik, kaiaren orma berdiñak.

XXXV

Emen bukatzen da ostera. Ontzitik jetxitzen naizenean,
begi-itsuka dakit aurrez-aurre daukadala,
beti auntzez eta izpiliku sasiz gaindua,
milluz, zorna-belarrez,
doi-doi mugitzen direlarik esku mee aiek
gaillurrean ernetako aize bigun gelditik, Egualdi Txarra.
Lur zaar baten muga bereziak:
zipres illara eguzki gurdi ondoren
binbilikatuz joanaz bide legor luzeetatik
eta sarkaldeko islan argi ta urrutia
egiñaz, muiño txikiaren gaindi.
Nere bizia eman dut sari gaitz orde
zenbait itz erantzitan.
Nere bizia ikusi dut orma bat gisa
arratsaldearen ixillean eta bere pausoa.

XXXVI

Arratsaldea igarotzen dalako ta orain eguzkia mendizandikoa dalarik,
poliki begiratzen dut, orain itzaletik.
Baiña dizdira nere aurrekaldean iraunez zegon,
zabal nere aurrekaldean, alorretatik,
ta, zaldi nekatua, itsas bazterretik dator,
bidetik, ondarrezko azken oera.
Parre dagit, zeren dakidanez ilkorra naizela, ta onean
pentsatzen dut, beti ain legor, eta txarrean, ekartzen didana.
Aizea jaikitzen da aien legorretan,
kaiñaberetan piltzar ametsak jarraitzen zituana,
ta bira, zaunkak jasoaz, etxearen bakardade
aren inguruan, urrutian.

XXXVII

Urrun,
itxia:
etxea.
Bakarti,
mutuaren
esku berritxu
eragiñen gisa,
garrak.

Bide legorrak
eramaten ninduan.
Nekearen
luzera guzian,
ertzetan,
lurperatuak,
osiñak
erakartzen naute.

Begiratu ta dakit
zelan jetxitzen diren,
itsu, poliki-poliki,
sakontasunetara.
Enborrak
auzpez,

billatzen zituzten
urak
beretu gabeko
iturburuak.

Txingurri
geldiak
belzten dira
eguzki zaar
onek
orain eraztea
bukatu
dituan ezurretan.
Arbola,
sustraitutako
legorrean,
argitasunaren
mailletatik
jasotzen zituen
abarrak.

XXXVIII

Antolatua, ipinita, bear bada adigarri,
sorkeratik jasan dudan mundu txikia uzten dut
eta bertatik inguratu ninduana, zeren bat-batean eltzen dira
bidearen mugara ibillera kezkatia.
Indar arrigarria nere begieri baietsita
ormaren sendoera guzia bestalderatuta, begiztatzen ditut
itxiak, ixillak, burutapenak bakarti
sortuz eta goratuz dijoaztela
iñorentzat ere ez suaren esku eragiñak.
Ai! osiñetatik jexita berdintasun desberdintza
orren oiñaze nekez bildu ta ikasteko,
banan-bana, ezer-ezaren itzen letra!
Jostakin aizearen oiua etxe inguruan.
Ara emen gizon zaar bat, etxearen aurrez-aurre,
poliki-poliki bere autsa jasotzen duela,
une batean, idor ta billutsik, estatuaren gisa.
Lur legorra gero, betirako
numerotik kanpora, gizonarena, zatikaturik
sakonetan arbola sustraiz.

XXXIX

Lurraren legorte
gorrira nator.
Ixil sakona naiz
ia. Urruntzen naizela
auts zutitu batetik.

XL

Baiña lur elkorrean errotzen da piñua,
beragandik aize libreraz azita
eratu ta itz batzuekin esaten dut
labur ta ospetsu betiereko itz batean:
zutitzen naiz enbor zaarra itsas zaarraren gainetik,
itzaldu ta gordeaz nere bideko pausoa,
argia neregan atsedentzat da ta gaua apaltzen dut,
itzultzen dut itz gogorra aitz gorriaren kantan.

B., 1959-1962.

*Bizitzen sentitzen naiz bizitzen zeranean eta illaz
iltzen zeranean.*

2 Ko., VII, 3.

SALVADOR ESPRIU.

